



2021SPLE001
1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 1
EGUNA: 2021/01/28
HASIERA ORDUA: 19:00
AMAIERA ORDUA: 19:45
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa.

Nº: 1
DÍA: 28/01/2021
HORA DE INCIO: 19:00
HORA DE FINALIZACIÓN: 19:45
LUGAR: Salón Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambroner
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Arantza Egaña (Itziarko Auzo-Alkatea)

Jesus Mendizabal (Kontu-hartzailea)
Jorge González Endemaño (Idazkaria)

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Grupo Municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

Grupo Municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambroner
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Arantza Egaña (alcaldesa pedánea de Itziarko Auzo-Udala)

Jesús Mendizabal (Interventor)
Jorge González Endemaño (Secretario)



2021SPLE001
1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa honakoa onartzea, hala badagokio: Osoko bilkura hau atearik itxita egitea

Osoko bilkurak aho batez onartzen du bilkura atearik itxita egitea.

Gilen: Lehenik eta behin esatea Arantza Egaña, Itziarko Auzo-alkatea gonbidatu dugula, eta baita ere Diario Vasco kazetari bat, bilkuraren gaineko informazioa eskuratzeko asmoz, bertan egotea eskatu diguna.

Denak ados daude bi pertsona horien parte-hartzearekin.

2. Aurreko bilkurari (2020/11/26) dagokion akta zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Osoko bilkurak aho batez onartzen du 2020/11/26ko bilkurari dagokion akta zirriborroa.

3. Alkatearen dekretuen kontrola

Pedro: 424 eta 425, Eguneko zentroko kontratuaren aldaketa. Bi zenbaki daude. kontratu desberdinak dira?

Aritz: Alde batetik tabernako ustiapena eramaten duenarekin kontratatuta daukagu, Eusko Jaurlaritzak dekretatu zuenetik tabernen itxiera. Aurrekoan egin zen bezala kontratua aldatu da eta beraiek jarraitzen dute Eguneko Zentroko zerbitzua ematen. Eta

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

1. Aprobar, si procede, celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19

El pleno acuerda por unanimidad celebrar la sesión a puerta cerrada.

Gilen: Informaros que hemos invitado a Arantza Egaña, alcaldesa de Itziarko Auzo-Udala, así como a un periodista del Diario Vasco, que ha solicitado poder estar presente, con fines informativos.

Todos los presentes muestran su conformidad.

2. Aprobar, si procede, el borrador del acta de la sesión anterior (26/11/2020)

El pleno acuerda por unanimidad aprobar el borrador del acta de la sesión de 26/11/2020.

3. Control de los decretos del alcalde

Pedro: Los decretos 424 y 425, modificación del contrato del Centro de día. Hay dos números, ¿son contratos diferentes?

Aritz: Por un lado, tenemos contratado a quien lleva la concesión del bar, desde que el Gobierno Vasco decretó el cierre de los bares. Al igual que se hizo en la ocasión anterior, se ha modificado el contrato y ellos siguen prestando el servicio del Centro de día. Ahora volvemos a la situación



2021SPLE001
1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

orain berriro lehengora bueltatzea da.

anterior.

Pedro: 436 hilerriko epaiketa da edo zerbait berria da?

Pedro: ¿El 436 es el juicio del cementerio o es algo nuevo?

Idazkaria: Herritar batek administrazioarekiko auzia jarri zuen eta epaitegiak eskatu digu espedientea bidaltzeko. Hau da alkatearen agindua bidal dadila esanez.

Secretario: Un ciudadano nos puso un contencioso y el juzgado nos pide que le enviemos el expediente. Esta es la orden del alcalde para que se envíe el expediente al juzgado.

Pedro: Aurtengo hirugarrena, zer da?

Pedro: ¿Qué es el tercero de este año?

Gilen: Hau aholkularitza da, Debegesaren bitartez. "Karsta eta Gizakia, eta Historia-aurreko bailara", behin baino gehiagotan aipatu dugun proiektuaren ingurukoa da. Hori exekutatzeko hasteko asmoa dugunez, bideratzen hasteko aholkularitza kontratatzen da. Aurten eta datorren urtean zehar.

Gilen: Esto es asesoramiento, a través de Debegesa. Gira en torno al proyecto "Karsta eta Gizakia y el valle prehistórico", del que ya hemos hablado en más de una ocasión. Como la intención es empezar a ejecutarlo, contratamos la asesoría para empezar a tramitarlo. Durante este año y el que viene.

Pedro: Azkenengoz, hamahirugarrena. Animazio kontratu aldaketa. Zer da, ordutegi aldaketa?

Pedro: Por último, el decreto trece, "Modificación del contrato de animación". ¿Es un cambio de horario?

Aritz: Berriro ere aldatzen da bere garaian egin zen kontratazioa-aldaketa, ordu gehiago jarritz. Orain erabiltzaileak gutxitu direnez esan dute lehengo orduekin nahiko dela eta lehengo orduetara bueltatzen da.

Aritz: De nuevo modificamos el contrato, que en su día se modificó ampliando las horas. Como se ha reducido el número de usuarios, nos han dicho que es suficiente con las horas de antes, y por tanto volvemos a lo anterior.

Iñigo: 422, Hilerri berriko ordenantza proposamena jendaurrean jartzea.

Iñigo: 422 Exposición pública de la propuesta de ordenanza del nuevo cementerio.

Gilen: Pentsatzen dut publikatzea dela eta jendaurrean jartzea norbaitek zerbait adierazi edo ekarpenik egin nahi badu. Ondoren alegaziorik ez badago ikusiko dugu onartzen den edo ez. Alegaziorik balego, aztertuko ditugu barneratzen diren edo ez, eta horren arabera behin-betiko onartuko genuke. Prozedura hau izango da.

Gilen: Pienso que se trata de la publicación y exposición, por si alguien quiere hacer alguna aportación. Si no hay alegaciones, después veremos si se acepta o no. Si hubiera alegaciones, analizaremos si se incorporan o no, y en función de ello, la aceptaríamos definitivamente. Este será el procedimiento.



2021SPLE001
1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Iñigo: Publikatuta dago?

Iñigo: ¿Se ha publicado ya?

Gilen: Pentsatzen dut hau dela erabakia publikatu izan dadin

Gilen: Pienso que esta es la decisión para que se publique.

Idazkaria: Orain gauden unea hauxe da: Herritarrek egin zituzten ekarpen batzuk eta zuek ere bai. Horrekin testu bat egin da eta orain herritarrei erakusten diegu, norbaitek ekarpenik edo alegaziorik egin nahi badu, egin dezan. Hortik aterako dena, batzordean aztertuko da, eta ondoren, etorriko da hona, Osoko Bilkurara. Orain jendaurrean dago, nahi duenak ekarpenak egiteko.

Secretario: Nos encontramos en este punto: los ciudadanos han hecho unas aportaciones y vosotros también; con esto se ha redactado un texto y ahora se lo mostramos a la ciudadanía por si alguien quiere realizar aportaciones o alegaciones. Lo que resulte de ello, será tratado en comisión y luego vendrá aquí, al pleno. Ahora está en "Exposición pública" para que cualquier persona haga aportaciones sobre el texto.

4. Vialine enpresak kudeatutako 2020ko trafikoko isunei buruzko Alkatearen Dekretuen kontrola

4.- Control de los Decretos del Alcalde sobre multas de tráfico gestionadas por Vialine 2020

Pedro: Puntuaren zentzua argitzea nahiko nuke.

Pedro: Solicito que nos aclares la incorporación del punto.

Gilen: Kudeaketa osoa enpresak egiten duenez, guri dagokigu erabaki hori hartzea dekreturen bitartez. Dekretua idazkariak eta biok sinatzen dugu. Dekretu bidez onartzen direnez Osoko Bilkurak berretsi behar du modu zuzenean egin dela, Alkatearen Dekretuen kontrolaren bidez.

Gilen: Como toda la gestión la realiza la empresa, nos corresponde tomar la última decisión a través de decreto, que firmamos el secretario y yo. Dado que se aprueba mediante Decreto, el Pleno debe ratificar que se ha realizado de forma correcta, mediante el control de decretos que hace en todas las sesiones ordinarias.

Idazkaria: Prozeduraren azken pausoa da Osoko Bilkurari informatzea dekretu horien gainean. Izunak bidaltzen zaizkio herritarrei, baino gero esan behar zaio Osoko Bilkurari zeintzuk bidali diren. Formalismoa da.

Secretario: Es el último paso del procedimiento, informar al Pleno de estos decretos. Las multas se envían a la ciudadanía, pero luego hay que informar al Pleno de cuáles se han enviado. Es una formalidad.

Pedro: Baina oraindik ez dakigu ordaindu behar duten edo ez ...?

Pedro: ¿Pero aún no sabemos si tienen que pagar o no?



2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Idazkaria: Bai, sinatu dira.

Secretario: Si, ya se han firmado.

Pedro: Orduan hauek guztiak ordainduta daude?

Pedro: ¿Entonces todas estas están pagadas?

Idazkaria: Hauek jakinarazpenak dira herritarrei.

Secretario: Estas son las notificaciones a los ciudadanos.

5. 2021eko Aurrekontua onartzea, hala badagokio

5.- Aprobar, si procede, el presupuesto de 2021

Gilen: Kontu-hartzaileak hartuko du hitza eta azalduko dizkigu oinarri tekniko eta ekonomikoak. Ondoren, Itziarrek EH Bilduren izenean azalduko dizkigu nondik norakoak. Gero Debarren Ahotsak izango du hitza, ondoren EAJk eta Arantza, Auzo-alkateak ere zerbait gehitu nahi badu ongi etorria izango da.

Gilen: Toma la palabra el interventor para explicarnos las bases técnicas y económicas. A continuación, Itziar intervendrá en representación de EH Bildu. Luego tendrán la palabra Debarren Ahotsa, el PNV y Arantza, alcaldesa de Itziarko Auzo-Udala. Si quieren añadir algo, será bienvenido.

Jesus: 2021eko aurrekontuen laburpen txiki bat egingo dugu 5 puntotan. Aurrekontu bateratua 9.066.000€koa izango da eta honela banatuko da:

Jesus: Vamos a hacer un pequeño resumen de los presupuestos del 2021 en 5 puntos. El total consolidado será de 9.066.000€ y se distribuirán como sigue:

- Debako Udala 8.804.000€
- Itziarko Entitatea: 1.090.000€
- Deba Musikal 586.000€

- Debako Udala 8.804.000€
- Itziarko Entitatea: 1.090.000€
- Deba Musikal 586.000€

Kapituluka desglosea hau da:

Desglose por capítulos:

DIRU SARRERAK

- Zuzeneko zergak: %26
- Zeharkako zergak % 1
- Tasak, eta beste: %16
- Trasferentziak %46

INGRESOS

- Impuestos directos: 26%
- Impuestos Indirectos 1%
- Tasas, y otros: 16%
- Transferencias 46%



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

INBERTSIOAK

- Elizburuko partzelak: 450.000€
aprobetxamendua
- Kapital trasf %1: 85.000€
- Eskatuko dugun mailegua %5:
430.000€

INVERSIONES

- Parcela Elizburu: 450.000€ de
aprovechamiento
- Kapital trasf %1: 85.000€
- Préstamo solicitado %5: 430.000€

GASTOAK

- Pertsonala: %31:
- Ontasun arruntean eta zerbitzuen
erosketa: %27
- Trasf arruntak: %6
- Inbertsioak: %12
- Finantzazioa amortizatzen dugun
kopurua: % 4

GASTOS

- Personal: %31:
- Bienes ordinarios y compra de servicios:
%27
- Trasf ordinarias: %6
- Inversiones: %12
- Importe de financiación que se amortiza:
% 4

3 AURREKONTU OREKA.

Diru sarrera arruntei gastu arruntak kenduta 502.000€ gelditzen dira.

Honi 2021ean amortizatzen dugun kopurua kentzen badiogu 169.000€ gelditzen dira. Honek esan nahi du dauzkagun 8.000.000€ diru sarrera arruntetatik 169.000€ erabiltzen ditugula inbertsioak finantziatzeko

4 UDALAREN ZORRA

2021eko Urtarrilean 844.000€ zorra daukagu. Mailegua eskatzea aurreikusita daukagu 450.000€koa. 2021ean amortizatuko ditugu 332.000€.

2021eko Abenduan 1.002.000€ko zorra izango dugu; gure zorpetze maila % 4,40 izango da.

3 EQUILIBRIO DEL PRESUPUESTO.

Descontando los gastos de los ingresos ordinarios nos quedan 502.000€.

A esto si le descontamos el importe a amortizar en el 2021 quedan 169.000€. Esto quiere decir que de los 8.000.000€ de los ingresos ordinarios utilizamos 169.000€ para financiar inversiones.

4 DEUDA DEL AYUNTAMIENTO

En enero de 2021 tenemos una deuda de 844.000€. Tenemos previsto solicitar un préstamo de 450.000€. En el 2021 amortizaremos 332.000 €. En diciembre de 2021 tendremos una deuda de 1.002.000€, con un nivel de endeudamiento del 4,40%

5. 2020eko EKITALDIKO DIRUZANTZAN ERAGINA

Udalak Abenduaren 31ko finantza egoeraren berri ematen du. Era berean Udalak hurrengo urtean aurrekontuen kreditu-aldaketak

5. INCIDENCIA EN LA TESORERIA DEL EJERCICIO 2020

El Ayuntamiento informa de la situación financiera a 31 de diciembre y manifiesta su capacidad para financiar las modificaciones de



2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

finantziatzeko duen gaitasuna adierazten du.

crédito de los presupuestos al año siguiente.

2021eko ekitaldirako behin-behineko gerakina 1.858.00€koa da. Kontutan izan behar da kopuru horretatik 883.000€ konprometituta daudela inbertsiotarako, beraz 2021ean kreditu aldaketarako 970.000€ erabili daitezke.

El remanente para el ejercicio 2021 es de 1.858.00€. Hay que tener en cuenta que de esta cantidad 883.000€ están comprometidos para inversiones, por lo que para la modificación de crédito en 2021 se pueden destinar 970.000 €

Itziar: Aurrekontuen zirriborroa lantze-rakoan honako irizpideak hartu dira kontutan:

- * Pandemiak sortutako egoera kontutan hartzea.
- * Gobernu-Plana bide-orri eta neurriak gauzatzen joatea urtez-urte.
- * Gizarte Politika eta Berdintasuneko batzordeak indartzea.
- * Euskara sustatzen jarraitzea eta kirol eta kultur ekitaldiak berreskuratzea 2020ko urtearekin konparatuz.
- * Ingurumenean eragina duten ekintzak aurreikustea.
- * 2021ean landutako merkataritza-plana kontutan izatea.
- * Udalerria hobetuko duten proiektuak edo inbertsioak aurreikustea.

Itziar: Se han tenido en cuenta los siguientes criterios para la elaboración del borrador de presupuestos:

- * Tener en cuenta la situación creada por la pandemia.
- * Avanzar año a año en la ejecución de las hojas de ruta y medidas del Plan de Gobierno.
- * Fortalecer las Comisiones de Política Social e Igualdad.
- * Continuar con la promoción del euskera y recuperar los eventos culturales y deportivos en comparación con el 2020.
- * Previsión de acciones con impacto ambiental
- * Tener en cuenta el plan comercial elaborado en 2021.
- * Prever los proyectos o inversiones que mejoren el municipio.

Itziar: Egungo errealitatetik abiatuta, 2021eko aurrekontuak herritarron bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko asmoz osatu ditugu.

Itziar: Partiendo de la realidad actual, hemos elaborado los presupuestos de 2021 con el objetivo de mejorar la calidad de vida y el bienestar de la ciudadanía.

Gizarte-politikari dagokionez:

Adinekoen prebentzioa eta eurei zuzendutako zerbitzuak indartuz, zahartzaro aktiboa lantzeko jarduerak bultzatuz.

Herritar zaurgarrienei ere diru-laguntzak ematen jarraitu eta indartzeko asmoa ere erakusten dute aurrekontu hauek: gizarte-larrialdi laguntza edo elikagai-bankuak. 2020ko elikagai-bankuko partidari gehitu egin diogu, eta txertaketa hau EAJtik jaso dugu.

En relación a la política social:

Potenciando la prevención hacia las personas mayores y los servicios dirigidos a ellas, impulsando actividades para trabajar una vejez activa.

Estos presupuestos muestran nuestra intención de seguir ayudando a la población más vulnerable mediante la ayuda de emergencia social o los bancos de alimentos. A la partida del Banco de Alimentos 2020 se le ha añadido la



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Haur eta gaztetxoentzat zaintza-sarea eta hezkuntza-errefortzua antolatzeke asmoa ere txertatu dugu.

Etxebizitza alokairua bultzatzeko diru-laguntza martxan jartzea. Hau DA taldearen ekarpena izan da.

Aniztasun-plana garatzea, herri inklusiboagoa egiteko asmoz.

Adineko-zentroko erabiltzaileen azterketa egitea. Hau gobernu planean 2022rako txertatutako neurrietako bat zen, baina EAJK 2021erako proposatu du eta txertatu egin dugu.

Berdintasuna eta partehartzaileari dagokionez, 2020an onartutako II. Berdintasun planean jasotako ekintzak gauzatzeko asmoz, tartean udal langileentzako esku liburu bat osatzea, bertan txertatuz ingurumena eta euskara ere, hiru arloak bilduta. Formazioa antolatzeaz gain honen inguruan eta gida morea argitaratzea. Baita ere egun esanguratsuak izaten dira eta bertan egitarau desberdinak antolatzen dira.

Partehartze aldetik galdeketa bat egiteko asmoa dugu etxebizitzaren inguruan eta Zumardian inguruko partehartze prozesu bat ere. Auzokako bilkurak ere martxan ipini nahi ditugu urte honetan.

Tokiko Garapenari dagokionez:

Garrantzitsua iruditzen zaigu merkatua indartzea. Aurreikusitako dugu San Roke eta Santa Katalinako bidea konpontzea eta Artzabalgo espaloia egitea. Azkeneko hau azken urteotan mahai gainean dagoen gai bat da, eta garrantzia duen gaia izanik, aurrekontuetan sartu dugu.

Bertako merkataritza bultzatzeko ekintzak gauzatzeko. Natur bideak balioan jartzea. Eraikin publikoen ziurtagiri energetikoa egitea.

aportación realizada por el PNV.

Incluimos nuestra intención de organizar una red de cuidados para niños y jóvenes y refuerzo a la educación.

La puesta en marcha de una subvención para el fomento del alquiler de viviendas. Esto ha sido una aportación del grupo DA.

Desarrollar un plan de diversidad para hacer un pueblo más inclusivo.

Realizar un estudio de las personas usuarias del centro de edad. Esta era una de las medidas incluidas en el plan de gobierno para 2022, pero el PNV lo ha propuesto para 2021 y lo hemos incorporado.

En cuanto a la igualdad y a la participación, nuestra intención de ejecutar las acciones recogidas en el II Plan de Igualdad aprobado en 2020, entre ellas la elaboración de un manual para el personal municipal, en el que se incluyan el medio ambiente y el euskera, recogiendo las tres áreas.

Realizar formación en torno a este tema y publicar la guía morada. También hay fechas señaladas en las que se organizan diferentes programas.

Respecto a la participación, tenemos previsto realizar una consulta en torno a la vivienda y un proceso de participación en torno a la Alameda. También queremos activar las reuniones vecinales de barrios.

En relación al Desarrollo Local:

Nos parece importante reforzar el mercado. Está previsto arreglar el camino de San Roque y Santa Catalina y la construcción de la acera de Artzabal; un tema que está sobre la mesa en los últimos años, y al considerarlo importante, lo hemos incluido en los presupuestos.

Realización de acciones para fomentar el comercio local. Puesta en valor de los caminos naturales. Realizar los certificados energéticos de los edificios públicos. Elaboración de un plan



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Aldaketa klimatikora egokitzeko ekintza plana osatzea. Hezkuntza eta kirol instalazioetan hobekuntzak egiten jarraitzea: Luzaroko aterpea eraiki, haur-eskolan pertsianak jarri, etab.

Udal antolaketari dagokionez:

Aparkalekuen berrantolaketa lantzen hasi gara; helburua udaberrian martxan jartzea da. Argiteria publikoa eguneratzea, hainbat ordenantza, hitzarmen edo zerbitzuen kontratazioa eguneratzea, udal-webgunea berritzea, fitxaje sistema sartzea, desfibriladore-gune berriak sortzea: ona litzateke hondartzan eta herrigunean eskura izatea.

Horretaz gain, gainontzeko alderdiekin, Itziarko Auzo-Udalarekin; Itziarko enpresa parkea eta gainontzeko instituzioekin elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu.

Kultur eta herri ondareari dagokionez:

Euskarari bultzada ematen jarraituko dugu. Kultur-jarduerak indartu nahi ditugu egoerak ahalbidetzen duen neurrian. Kartsa eta gizakia edo aurrehistoria proiektua martxan jarri nahi dugu, eta festa diren Debarren Eguna, San Juan, etab. diru-poltsa bat sortu dugu, eta egoeraren arabera, ikusiko dugu zer antolatu daitekeen.

Kontu-hartzaileak aipatzen duen bezala, udaleko aurrekontua 8.800.000€koa izango da. Auzo-Udalekoa 1.090.000€koa.

Udalak 850.000€ aurreikusi ditu inbertsiotarako. Hauetatik esanguratsuenak: Luzaroko aterpea, Artzabalgo espaloia (Foru Aldundiarekin harremanetan gaude elkarlanerako) S. Roke eta Sta. Katalinako bideak (100.000€). Arrantzale Kalea atontzea. Gaztelekuko leihoak aldatzea (23.500€), Futbol zelaiko led argiak (50.000€). Kiroldegi

de acción contra el cambio climático. Continuar con las mejoras en las instalaciones educativas y deportivas: construcción de un albergue en Luzaro, instalación de persianas en la guardería, etc.

En cuanto a la organización municipal:

Comenzar con la reordenación de los aparcamientos, para ponerlos en marcha en primavera. Actualización del alumbrado público, actualización de diversas ordenanzas, convenios o contratos de servicios, renovación de la página web, incorporación del sistema de fichaje, creación de nuevos espacios de desfibriladores: convendría tener en la playa y en el Casco Urbano

Además, tenemos intención de seguir colaborando con el resto de partidos, la Entidad Local Menor, el parque empresarial de Itziar y el resto de instituciones.

Respecto al patrimonio cultural y popular:

Seguiremos impulsando el euskara. Queremos reforzar las actividades culturales en la medida en que las circunstancias lo permitan. Poner en marcha el proyecto “Kartsa eta Gizakia o prehistoria”. Para esas fiestas, como son el Día del Debarra, San Juan, etc. hemos creado una bolsa y según la situación del momento valoraremos lo que se puede organizar

Como indica el interventor, el presupuesto municipal será de 8.800.000€, y el de la Entidad Local Menor 1.090.000€

El ayuntamiento prevé 850.000€ para inversiones. Las más significativas son: El albergue de Luzaro, la acera de Artzabal (estamos en contacto con la Diputación para colaborar), los caminos de S. Roke y Sta. Katalina (100.000€). Acondicionar “Arrantzale Kalea”. Cambiar las ventanas del Gazteleku (23.500€). Luces Led en el campo de futbol (50.000€).



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

ganean paddel pistak instalatzea (DAen ekarpena). Haurreskolan pertsianak, Aldats Frontoian sarea (6.000€), webgunea berritzea. Calbeton. Zumardiko fatxada berritzea, udalak %15 jabetza du eta udalak 100.000€ aurreikusi ditu obra egiten denerako.

Iruditzen zaigu aurrekontu orekatua eta potentea prestatu dugula, eta hemendik aurrera plangintza egin, eta asmo hauek osatzeko pixkanaka ekin, egin beharko diogu bide orria osatzen joateko.

Eskerrak eman nahi dizkizuet areto honetan elkartuta gauden ordezkari bakoitzari; Debako Udalak urtarrilean aurrekontuak onartzea guztion esfortzuak ekarri duelako, eta bereziki, Jexus kontu-hartzaileari, aurreko astetan egindako ahaleginagatik, eta bestetik, Enriqueri, lanketa honetan bidelagun izateagatik

Enrique: Amaitu berri den 2020. urteari buruzko hausnarketa txiki bat egin nahi nuke. Badakigu oso urte zaila izan dela arlo guztietan eta, jakina, udalaren baliabideen kudeaketan. Pandemiak markatu egon da, eta horrek arreta berezia eskatu die gizarte-zerbitzuei eta merkataritza-aktibitateari, eta horrek zaildu egin du asmo handiagoko beste proiektu batzuk egitea. Hala eta guztiz ere, aurrekontu horiek kontserbadoregiak izan direla uste dugu, eta ondorioz, desbideratze handia izan dugu. Langile-gastua 217.000€ txikiagoa zena, aldeztatik jakin izan bagenu, pixka bat zorrotzagoak izango ginatekeen eta beste modu batera jardun genezakeen edo inbertsioren bat egin. Horrek esperientzia gisa balio behar digu, etorkizunean udalak

Instalar unas pistas de paddel encima del polideportivo (Aportación de DA). Las persianas de la guardería; la red del frontón Aldats (6.000€), renovar la web. Renovar la fachada que da a “Calbetón Zumardia”; el ayuntamiento tiene un 15 % de propiedad, por lo que se ha hecho una previsión de 100.000€ para cuando se haga la obra.

Nos parece que hemos elaborado un presupuesto equilibrado y potente. A partir de ahora tenemos que planificar y trabajar poco a poco en la elaboración de la hoja de ruta.

Quiero dar las gracias a cada uno de los representantes que estamos reunidos en esta sala; la aprobación en enero de los presupuestos del Ayuntamiento de Deba ha supuesto un esfuerzo para todos, y especialmente por el esfuerzo realizado por el interventor, Jexus, durante las semanas anteriores y también a Enrique por ayudarnos en su elaboración.

Enrique: Me gustaría hacer una pequeña reflexión sobre el año 2020 que acaba de finalizar. Somos conscientes que ha sido un año muy difícil en todos los ámbitos, y por supuesto, en la gestión de los recursos del ayuntamiento. Ha estado marcado por la pandemia, lo que ha requerido una especial atención a los servicios sociales y a la actividad comercial, lo que ha dificultado la consecución de otros proyectos más ambiciosos, que se podían haber hecho. A pesar de ello, consideramos que estos presupuestos han sido demasiado conservadores, y como consecuencia, hemos tenido una desviación importante. El menor gasto de personal (217.000€), que si hubiésemos conocido con antelación, hubiésemos sido un poco más exigentes;



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

errealitatearekin bat datozen aurrekontuak egin ditzan eta jarraipen eta kontrol hurbilagoa izan dezan, baliabideen kudeaketa eraginkorragoa lortzeko.

2021ari dagokionez, esan behar da aurten ere pandemiak markatuta jarraituko dugula, eta ziurgabetasun handia izango dugula; horregatik, udalak aurreko urtetik ikasi beharko du eta baliabideen kudeaketa eraginkorragoa egin, aprobetxatuz etorkizunean inbertsioak eta azterlanak egiteko.

DAtik uste dugu aktiboki parte hartu dugula aurrekontu hauek egiten, bai ideiak emanaz eta partida esanguratsuak sartuz, bai kostuak aurreztea dakartenak doitzuz; horrela, horrek guztiak aurrekontu oso zorrotzak ekarri ditu.

Horrek guztiak dedikazio eta ahalegin handia eskatzen du ezarritako helburuak lortzeko, beraz DA laguntzeko prest dago. Beraz, eta indar politiko guztiek batera egindako lana izan denez, denon ongizatea hobetzeko helburuarekin, DAak baiezkota ematen die aurrekontu hauei.

Iñigo: Orokorrean esan nahi dut, gure ikuspuntutik, aurrekontu hauek, eta batez ere aurreko zirriborroek, ez dietela erantzunik ematen Debaren etorkizunerako komenigarritzat jotzen ditugun ildo estrategikoei. Ez genuen konpromisorik ikusten kontuetan, ezta eskatzen genuen

podíamos haber actuado de otra forma o realizado alguna inversión. Esto nos debe servir como experiencia para que en un futuro el ayuntamiento elabore unos presupuestos más acordes con la realidad y llevar un seguimiento y control más cercano, con el objetivo de conseguir una gestión más eficiente de los recursos.

Con respecto al 2021, comentar, que este año también avanzamos marcados por la pandemia y vamos a tener una gran incertidumbre; por ello el ayuntamiento deberá aprender del año anterior y realizar una gestión más eficiente de los recursos, y aprovechar para realizar inversiones y estudios de cara al futuro.

Desde DA consideramos que hemos tomado parte activa en la elaboración de estos presupuestos, tanto dando ideas e incorporando partidas significativas, como ajustando aquellas que suponen un ahorro de costes, de forma que el conjunto de todo ello ha dado lugar a unos presupuestos muy exigentes.

Todo esto supone una gran dedicación y esfuerzo para la consecución de los objetivos marcados, por lo cual DA se encuentra dispuesta a colaborar. Por tanto y dado que ha sido un trabajo conjunto de todas las fuerzas políticas con el objetivo de mejorar el bienestar de todos y todas, DA da el sí a estos presupuestos.

Iñigo: De manera general, desde nuestro punto de vista, estos presupuestos, y sobre todo los borradores anteriores, no dan respuesta a las líneas estratégicas que creemos convenientes para el desarrollo de Deba para su futuro. No vemos compromiso en las cuentas ni esa estrategia que reclamábamos. Para intentar



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

estrategia hori ere. Egoera hau zuzentzen saiatzeko, mahaiko negoziazioan eta lan-prozesuan, zenbait proposamen egin ditugu:

- 1-. Beharra duten kolektibo eta pertsonentzako gizarte-laguntzak indartzea, eta elikagai-bankurako partida bat jasotzea.
2. Debako lurraldean banda zabalaren hedapena bermatzea.
3. Itziarko industrialdearen garapena bultzatzea.
4. Deban hirugarren adinekoentzako egoitza baten proiektua.
5. Turismoaren eta merkataritzaren garapenerako plan estrategiko bat egitea.

Bost proposamen horietatik, soilik jaso dira aurrekontuan gizarte-politikei buruzkoak eta Itziarko Toki-erakunde Txikiak banda zabala hedatzeko konpromisoa (Aldundia gidatzen ari den hedapen-proiektuaren barruan).

Pozik gaude ekintza horiek bideratzen lagundu ahal izan dugulako, baina gainerako proposamenei dagokienez, jasota ez egoteaz gain, ez zaigu konpromiso-bermerik eman. Negoziazio-bilera batean komentatu genuen, hor puntu ahula ikusten dugula. Proposamen batzuk errepikatutakoak dira, hala nola, Hirugarren Adinekoentzako Egoitza eta Turismoaren eta Merkataritzaren Garapenerako proposamena, aurreko beste urte batzuetako beste akordio batzuetan konprometituak.

Bestalde, aurrekontu horien negoziazioan ahalegin handiagoa egin da babesak lortzeko, zentzua emateko baino.

Gure laguntza lortzea oso erraza izango zen, ekonomia- eta aurrekontu-mailan ez zen partida handirik behar, baina konpromiso sendoa eta kudeaketa-ahalegina eskatzen ditu, lan handiko ildo korapilatsuetan. Badirudi gobernuaren nahia adostasun hori ez

corregir esa situación en el proceso de negociación y trabajo en las mesas, hemos hecho una serie de propuestas:

- 1-. Refuerzo de las ayudas sociales a colectivos y personas necesitadas, y recaudación de una partida para el banco de alimentos.
2. Garantizar el despliegue de la banda ancha en el territorio de Deba.
3. Impulsar el desarrollo del Polígono Industrial de Itziar.
4. Proyecto de una residencia para la tercera edad en Deba.
5. Elaboración de un plan estratégico para el desarrollo turístico y comercial.

De estas cinco propuestas, sólo se han reflejado en el presupuesto las relativas a políticas sociales y el compromiso por parte de la Entidad Local Menor de Itziar en lo relativo al despliegue de la banda ancha, dentro del proyecto despliegue que está liderando la Diputación.

Estamos satisfechos por haber podido colaborar a encaminar esas acciones, pero del resto de las propuestas, al margen de no verse reflejadas, tampoco se nos ha dado ninguna garantía de compromiso. Lo comentamos en una reunión de negociación, ahí vemos un punto débil. Algunas propuestas son recurrentes, como es el caso de la Residencia para la Tercera Edad y la propuesta para el Desarrollo Turístico y Comercial, comprometidos en otros acuerdos previos, de otros años.

Por otro lado, en la negociación de estos presupuestos se ha puesto más empeño en lograr apoyos que en darles sentido.

El apoyo nuestro hubiera sido muy sencillo de conseguir; a nivel económico y presupuestario no suponía grandes partidas, pero sí implica un compromiso firme y un esfuerzo en la gestión, en líneas complicadas y de mucho trabajo. Parece que la voluntad del gobierno ha sido no



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

bultzatzea izan dela, eta guk lekuko hori jaso dugu; ondorioz, ez ditugu aurrekontu hauek babestuko eta aurka bozkatuko dugu.

Arantza: Aurreko urtean bukatu genuen Debako Udala eta Auzo-Udalaren hitzarmenarekin, pauso oso garrantzitsua izan da. Asko pozten gara horrelako ahalegina egin duzelako aurrekontuak urtarrilean onartzeko, horrek esfortzu handia suposatzen baitu eta Auzo-Udalarekiko eduki den jarrera ere oso positibotzat baloratzen ditugu, eta bide bat elkarlanerako. Hurrengo plenoan onartuko ditugu Itziarko aurrekontuak.

Itziar: Enriquek aipatu dituen kontuetan, batez ere 2020ko aurrekontuari dagokionez, erabat ados. Ez da erraza pertsonaleko gastu horiek hainbeste zehaztea, baina egokitzen joan behar da pixkanaka.

Iñigok egin dituen aipamenean artean aipatu nahi dut lehenengo lan-bilera Abenduaren 11an egin zela, eta Gabonak aurretik publiko egin zen gure asmoa zela Urtarrileko Udalbatzan aurrekontuak onartzea. Hainbat bilera egin dira hilabete eta erdi honetan, eta zuen ekarpena aurreko astean jaso genuen, ostegunean hain zuzen; ostiralean elkartu ginen zuen azalpenak entzuteko, astelehenean berriro elkartu ginen, eta aipatu dituzun bost horietatik:

- Gizarte zerbitzuena ados geunden.
- Zentroa egiteko azterketa egiteko ados ginela ere bai. Lehenik azterketa egin behar da.
- Turismo Plana. Debegesarekin jarri ginen harremanetan eta azaldu genuen Debegesak

favorecer ese consenso, y nosotros recogemos ese testigo. En consecuencia, no vamos a apoyar estos presupuestos y vamos a votar en contra.

Arantza: El año pasado finalizamos el convenio entre el Ayuntamiento de Deba e Itziarko Auzo-Udala; ha sido un paso muy importante. Nos alegramos mucho por esta determinación para aprobar los presupuestos en enero, lo que supone un gran esfuerzo. Valoramos la actitud que se ha mantenido hacia Itziarko Auzo-Udala como muy positiva y un camino para la colaboración. En el próximo pleno aprobaremos los presupuestos de Itziar.

Itziar: En las cuentas a las que ha hecho referencia Enrique, sobre todo en lo que se refiere al presupuesto del 2020, totalmente de acuerdo. No es fácil concretar tanto esos gastos de personal, pero hay que ir ajustando poco a poco.

Entre las menciones que ha hecho Iñigo quiero indicar que la primera reunión de trabajo se celebró el 11 de diciembre, y antes de Navidad se hizo público que nuestra intención era la de aprobar los presupuestos en el pleno de enero. Se han celebrado varias reuniones en este mes y medio, y vuestra aportación la recibimos la semana pasada, el jueves. El viernes nos reunimos para escuchar vuestras propuestas. El lunes volvimos a reunirnos y de las cinco que has mencionado:

- Estábamos de acuerdo en lo referente a los servicios sociales.
- También estábamos de acuerdo en hacer ese estudio para construir el centro. Primero hay que hacer el análisis.
- Plan de Turismo. Contactamos con Debegesa y os explicamos que Debegesa elaboró un Plan



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

2020ko bukaeran egin zuela eskualdeko Turismo Plan bat, eta horrez gain Debak 2016ko plan bat duela oraindik ekintzak burutu gabe. Horrez gain, Debegeatik jaso genuen txosten bat esanez momentu honetan ez zuela zentzu handirik turismo plan bat egitea Deban. Hau izan da arrazoiak proposamen hau ez jasotzeko; eduki tekniko batzuetan oinarritu gara eta arrazoituta eman genuen erantzuna.

- Poligonoari dagokionez antzekoa gertatzen da, pauso batzuk eman behar dira, eta ezin da bukaerara iritsi, aurretik pauso hauek eman gabe. Azaldu genizuen hori aztertzen ari garela eta pauso batzuk ematen.

Ez dugu ulertzen kontrako bozka hori, benetan elkarlanerako prest zaudetela esaten duzuenean beti; ordenantzetan ere zerbait antzekoa gertatu zen.

Gustatuko litzaiguke gainerako lanketetan garbiagoak izatea hasieratik, eta ez lan-bileretan ekarpenak jaso, azkeneko momentuan zuek ekarpenak egin, guk arrazoitu zergatik ez ditugun horiek jasotzen, eta azkenean kontrako bozka jasotzeko. Bakoitzak bere bozka erabakitzen du eta errespetagarria da, baina ez zaigu oso bidezkoa iruditzen kontrako bozka izatea.

Iñigo: Epeei buruz esaten duzuna, egindako bileren kronograma egiten badugu, behinbetiko likidazioa Urtarrilaren 14an aurkeztu zen. Hor gure proposamenak egiteko konpromisoa hartu genuen, baina oinarri hori behar genuen gure proposamenak nola doitu ikusteko. Proposamenak 21ean bidali genituen, eta 22an negoziazio-mahaia izan genuen.

Proiektuen komenigarritasunaren edo ez egokitasunaren gaia, hori hitz egin genuen: ez

Comarcal de Turismo a finales de 2020 y que Deba tiene un Plan del 2016 sin ejecutar. Además, recibimos un informe de Debegea diciendo que en este momento no tiene mucho sentido hacer un plan de turismo en Deba. Por esta razón no hemos incluido vuestra propuesta; nos hemos basado en unos datos técnicos y os dimos una respuesta razonada.

- En cuanto al Polígono ocurre algo parecido. Hay que dar unos pasos y no se puede llegar al final sin progresar antes. Os explicamos que estamos analizándolo y progresando.

No entendemos ese voto en contra. Siempre decís que estáis dispuestos a colaborar; en las ordenanzas también ocurrió algo parecido.

Nos gustaría que en el resto de los trabajos fuerais más claros desde el principio, y no recoger aportaciones en las reuniones de trabajo, hacer aportaciones en el último momento, razonar por qué no las recibimos y finalmente recibir el voto en contra. Cada uno decide su voto y es respetable, pero no nos parece muy justo que sea un voto en contra.

Iñigo: Lo que comentas de los plazos, si hacemos un cronograma de las reuniones realizadas, la liquidación definitiva se presentó el 14 de enero. Ahí nos comprometimos a hacer nuestras propuestas, pero necesitábamos esa base para ver cómo podíamos ajustar nuestras propuestas. Las propuestas las enviamos el 21, y el 22 tuvimos la mesa de negociación.

El tema de la conveniencia o no de los proyectos, eso lo hablamos: no es tanto esa



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

da hainbeste kopuru hori, baizik eta agian konpromiso hori plangintza batean finkatzea, guri hori babesteko konfiantza ematen digun zerbaitetan. Uste dut elkarlanean aritu garela, ekarpenak egin ditugula, eta gure asmoa geneukan zirriborroa hobetzean. Gure "ezetza" gai horrengatik da; urte batetik bestera errepikatu diren gaiak dira eta ez dugu aurrera egin.

Itziar: Aurreko urtetatik datozen proposamenetako bakarra adineko erresidentziari buruzko azterketa dela esango nuke. Nahiz eta likidazioa Urtarrilaren 14an eduki, Abenduko bileretan Azarora arteko likidazioa genuen, eta horren gainean lanketak egin daitezke; gainontzekook horrela egin dugu.

Bestalde, komentatzen dituzuen plan horiei buruz, Debegesakoek esandakoa izan da; diru hori benetan behar denean gastatu behar dela uste dugu. Lehenengo, goazen esku artean ditugun ekintzak burutzerara eta ondoren joango gara beste batzuekin.

Gilen: Nik eskerrak eman nahi dizkiet alderdi guztiei, eta lanketan parte hartu duten guztiei. Denok aipatu dugu nondik etorri garen; nabarmentzekoa, izan ditugun zailtasunak aurreikuspenak egiteko 2020an zehar. Krisi egoera edukiko genuela aurreikusten genuen, baina ez genekien horren kudeaketa nolakoa izango zen. Gehien azpimarratzen den hitza "elkarlana" da. Zerbait ona izan badu honek izan da hasieratik denok eseri ginela eta lanketa egin dugula elkarrekin; ondoren esatea errazagoa da, baina bere momentuan beti izaten dira txanponaren bi aldeak. Nik konprentzioarekin baino exekuziorako zailtasunarekin lotuko nuke, hau da nire eta nire taldeko kideen borondateagatik, inondik inora ez da izan arazoak egon direnean.

cantidad, sino fijar ese compromiso en una planificación, en algo que a nosotros nos dé confianza para apoyar eso. Creo que hemos colaborado, hemos hecho aportaciones, y nuestra intención ha sido mejorar el borrador que teníamos. Nuestro "no" es por este tema, son temas recurrentes que se han trasladado de un año a otro y no hemos avanzado.

Itziar: La única propuesta que viene de años anteriores diría que es el estudio en residencia de mayores.

Aunque la liquidación fue el 14 de enero, en las reuniones de diciembre teníamos la liquidación hasta noviembre, y se puede trabajar sobre eso; el resto así lo hemos hecho.

Por otra parte, sobre los planes que comentáis, ha sido lo que nos han dicho desde Debegesa; creemos que ese dinero hay que gastarlo cuando realmente se necesita. Primero vamos a llevar a cabo las acciones que tenemos entre manos y después empezaremos otras.

Gilen: Yo quiero agradecer a todos los partidos y a aquellas personas que han participado en este trabajo. Todos hemos mencionado de dónde venimos, las dificultades que hemos tenido para hacer previsiones a lo largo de 2020. Solo preveíamos que íbamos a tener una situación de crisis, pero desconocíamos cómo iba a ser su gestión. La palabra que yo remarcaría es "colaboración". Si algo bueno ha tenido todo esto ha sido que desde el principio todos nos hemos sentado y hemos trabajado juntos; es más fácil decirlo después, pero en su momento hay que ver las dos caras de la moneda. Yo más que a la comprensión lo asociaría a la dificultad en la ejecución. Es decir, cuando ha habido problemas no ha sido por mi voluntad ni la de los miembros de mi equipo. Ha habido



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Arazoak egon dira eta gauza batzuk exekutatzeko zailtasun nabarmenekin ibili gara; irakaspen prozesu interesgarria ere izan da.

2021eko aurrekontuaren lanketari dagokionez, onarpena lortzea zen erronketako bat, saiatu ginen hori aipatzen hasieratik. Denok uste genuen aurrekontu osoa likidatu gabe egon arren, borondatearekin aurreikuspenak egitea posiblea zela eta Ogasun Batzordetan landu ondoren lortu dugu hona iristea.

Onartu nahi ditugun aurrekontu hauen exekuzioari dagokionez, gure asmoa hartutako konpromiso hauek modu efizientearekin egikaritzea da. Bi alderdiek (DAk eta EAJk) aipatu duten "hobeto funtzionatze" hori, gure asmoa ere bada, eta horretara jarri beharko gara buru-belarri. Aurrekontu potentia daukagu, lana exigituko duena, baina pentsatzen dut buelta emango diogula.

Azkenik eskerrak eman parte hartu duzuen guztioi. Gehiago osoa behar genuen proiektua zegoen bitartean, eta gehiago osoa nahi genuen. Hau da akordio bat. Egutegia garrantzitsua izan da. Urtarrilean gaude eta pozik, egindako lanagatik; ilusioz horrek ekarri ahal duenarekin.

Pozik Udalerri eta herri ikuspegia lehenetsi delako. Eskerrik asko Itziar, lana gidatzeagatik; DARI elkarlanagatik; EAJri egindako ekarpenengatik, eta Arantza eta Auzo-Udalari adostasuna bilatzeko lanagatik.

Aldeko bozkek: 10 (EH Bildu eta DA)
Aurkako bozkek: 3 (EAJ-PNV)

problemas y al ejecutar algunos temas hemos tenido dificultades notables; también ha sido un proceso de enseñanza interesante.

Respecto a la elaboración del presupuesto del 2021, uno de los retos era lograr su aprobación, lo cual ya lo mencionamos desde un principio. Veíamos que aunque el ejercicio no estuviera liquidado en su totalidad, con voluntad era posible hacer previsiones, y tras trabajarlas en las comisiones de hacienda, hemos conseguido llegar hasta aquí.

En cuanto a la ejecución de estos presupuestos que pretendemos aprobar, nuestra intención es materializar estos compromisos adquiridos de la manera más eficiente. Ese mejor funcionamiento al que ambos partidos se han referido (DA y EAJ/PNV) es también nuestra intención, y es en ello donde nos tenemos que centrar. Tenemos un presupuesto fuerte, que exigirá trabajo, pero pienso que lo vamos a conseguir.

Finalmente, agradecer a todos los que habéis participado. Necesitábamos mayoría absoluta mientras hubiera un proyecto, y queríamos una mayoría absoluta; esto es un acuerdo. El calendario ha sido importante, estamos en enero y contentos por el trabajo realizado e ilusionados con lo que esto nos puede aportar. Satisfechos porque se ha priorizado la visión municipal y popular. Gracias Itziar por dirigir este trabajo, a DA por el trabajo en equipo, a EAJ por vuestras aportaciones y a Arantza y a la Entidad Local Menor por su trabajo en la búsqueda de consenso.

Votos a favor: 10 (EH Bildu y DA)
Votos en contra: 3 (EAJ-PNV)



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Hortaz Udaltzarak gehiegotz 2021eko aurrekontuak onartzen ditu.

Por tanto, el Pleno aprueba por mayoría los presupuestos del 2021.

6. ESKARI ETA GALDERAK

Pedro: 2021eko lehenengo osoko bilkuran gaude, eta 2020ko balantzea baloratu ondoren, uste dugu proiektu garrantzitsu batzuk ez direla behar beste aurreratu; horregatik nabarmendu nahi dugu:

- Zubia eraikitzeko lanak hasi gabe daude oraindik.
- Hilerrak atzeratzen jarraitzen du, martxan jarri gabe.
- Elizburuko proiektua amaitzea, etxebizitza tasatuak eraiki eta bidea hasi.

DAn prest gaude garapenean laguntzeko, baina eskatzen dugu beharrezko neurriak hartzea eta kudeaketa arintzea.

Gilen: Ados, testigua hartzen dizut. Ezin dut besterik esan. Interes asko daukagu hilerria martxan jar dadin; badakizue zer daukagun herrian. Zubia eraikitzeko duela astebete Foru aldundiko zuzendariarekin hitz egin genuen Mutrikuko alkateak eta biok.

Badirudi arazo bat eduki zutela enpresa bat lehiaketan sartzerako orduan, eta prozedura guztia atzera bota zuten alegazio bategatik; erabaki zuten hori konpondu eta berriro aurkeztea. Laster hastekoak dira. Ez dago gure eskumenen baitan. Saiatu gara ahalik eta gehien; Urasandiko auzo-elkartearekin ere bildu gara.

6. RUEGOS Y PREGUNTAS

Pedro: Nos encontramos en el primer pleno del 2021 y después de haber valorado el balance del 2020, creemos que existen una serie de proyectos importantes que no han avanzado lo suficiente, y que queremos resaltar:

- El puente, sigue sin iniciar su construcción.
- El cementerio, sigue retrasándose y sin ponerse en marcha.
- La finalización del proyecto de Elizburu con la construcción de viviendas tasadas y el inicio del vial.

Desde DA estamos dispuestos a colaborar en el desarrollo, pero exigimos que se tomen las medidas necesarias y agilizar su gestión.

Gilen: De acuerdo, te tomo el testigo. No puedo decir nada más. Tenemos mucho interés en que se ponga en marcha el cementerio; sois conocedores de lo que tenemos en el pueblo. Respecto al puente, hace una semana que el alcalde de Mutriku y yo hablamos con el director de la Diputación Foral. Parece que tuvieron un problema al incluir una empresa en el concurso; por una alegación, se rechazó todo el procedimiento. Decidieron solucionarlo y volver a presentarlo. Se iniciará en breve. No está en nuestras manos, nos hemos esforzado al máximo; también nos hemos reunidos con la asociación de Urasandi.



DEBAKO UDALA

2021SPLE001

1.BILERA: OHIKOA 2021/01/28

Elizburukoa gure asmoa ere bada eta erabat babesten dut esaten duzuna.

Lo de Elizburu es también nuestro deseo y apoyo plenamente lo que dices.

Horrenbestez 19:45etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el pleno a las 19:45 horas.

Jorge González Endemaño
Idazkarira



Gilen Garcia Boyra
Alkatea

